



#### IV. ERANSKINA

#### HELDUEN HEZKUNTZA

#### 2021-2022 IKASTURTEKO CURRÍCULUM-ANTOLAKUNTZA

Helduen Hezkuntzaren curriculum-antolakuntza abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena) laugarren xedapen gehigarrian eta Hezkuntzako sailburuaren 2021eko maiatzaren 20ko Aginduan (Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena) dago jasota.

#### EBALUAZIOAREN IZAERA

Helduen Hezkuntzan ebaluazioa banan-banakoa, etengabea, hezigarria eta integratzailea izango da; gainera, Hasierako Irakaskuntzak II eta Bigarren Hezkuntzaren kasuan, arloen arabera bereiziko da.

- Ikasleren baten aurrerapena ez bada behar bezalakoa, hezkuntza indartzeko neurriak ezarriko dira zailtasunak hauteman bezain laster.
- Ebaluazioa eguneroko lanaren behaketan eta jarraipenean oinarrituko da, eta irakaskuntza- nahiz ikaskuntza-prozesuak hobetzeko tresna izango da.
- Irakasleak bereizita egingo du arlo bakoitzaren ebaluazioa, arlo bakoitzaren ebaluazio-irizpideak kontuan izanik.

Aurrez aurreko modalitatean, ikasleen etengabeko ebaluazioa egin ahal izateko, ikasleek modu erregularrean joan behar dute ikasketa-plana osatzen duten arloetarako programatutako eskoletara eta jardueretara eta irakaskuntzetarako programatutako jarduera osagarrietara; hala, ezingo dira etengabeko ebaluazioaren bidez kalifikatu % 20tik gorako absentismoa duten ikasleak.

Urruneko modalitateko irakaskuntzan, etengabeko ebaluazioari buruzko erreferentziak ere aplikatuko dira, eta, horretarako, aplikazio, plataforma eta programa informatiko espezifikoak erabiliko dira, etengabe dihardutela edo irakaskuntzarekin etengabeko lotura dutela frogatzeko.

#### MODULU-AMAIERAKO EBALUAZIOA

Modulu bakoitzaren hasieran, hasierako balorazio bat egingo da. Horri esker, ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera zein den ezagutuko da, baita taldearen egoera orokorra ere; hala, programazio didaktikoetan dagozkion doikuntzak egingo dira.



Moduluan barrena, irakasle taldeek informazioa jaso eta jarraipena egingo dute, zehazteko zer-nolako aurrerapena egin duen ikasle bakoitzak arlo bakoitzean ezarritako konpetentzien garapen-maila eskuratzeko eta helburuak lortzeko.

Modulu bakoitzaren amaieran, ikasleek lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa egingo dute talde bakoitzeko irakasleek. Arlo bakoitzaren kalifikazioa egiteko, kontuan hartuko da oinarrizko konpetentzia guztien lorpen-maila.

Etengabeko ebaluazio-prozesuan parte hartu ez duten edo etengabeko ebaluazio hori egiteko eskubidea galdu duten ikasleek aurrez aurreko eta idatzizko proba bat egin beharko dute modulu bakoitzeko arlo bakoitzean, eta ikasitako arlo osoa hartuko du. Ikasketa horiek emateko baimendutako zentro bakoitzeko irakasle taldea izango da proba horien arduradun. Proba horietara aurkezteko, ez da nahitaezkoa izango aurrez aurreko eskoletara joatea.

Helduen Hezkuntzan matrikulatutako ikasle guztiak matrikulatuta dauden arlo guztietan kalifikatu behar dituzte beren irakasleek.

Hasierako irakaskuntzen I. graduan, modulu bakoitzeko ebaluazioaren emaitzak honela adieraziko dira: GAI (G) edo EZ GAI (EG); negatibotzat jotzen da EG kalifikazioa, eta positibotzat, aldiz, G kalifikazioa.

Hasierako irakaskuntzen II. graduan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortzekoetan, irakaskuntzen ebaluazioaren emaitzak honela kalifikatuko dira: kalifikazio negatiboak Gutxiegi (GU), eta gainerakoak Nahikoa (NA), Ongi (O), Oso Ongi (OO) eta Bikain (BI). Horien ondoan joango da zenbakizko kalifikazioa ere, dezimalik gabe, batetik hamarrera. Hain zuzen ere:

Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4.

Nahikoa: 5

Ongi: 6

Oso Ongi: 7 edo 8.

Bikain: 9 edo 10.

Etengabeko ebaluaziorako eskubidea galdu duen ikasle bat ez bada aurkezten matrikulatuta dagoen arloetako azken ebaluaziora, ebaluazio-dokumentuetan honela erregistratuko da: "Ez aurkeztua" (EA).

Ikasle bat ez bada aurkezten etengabeko ebaluazioan Gutxiegi kalifikazioa duen arloetako baten bati dagokion amaierako ebaluaziora, ebaluazio-dokumentuetan "Ez aurkeztua (EA)" gisa erregistratuko da.

Ikasleek aurreko moduluari dagozkion arloak gainditu beharko dituzte, irakasleek hurrengo moduluko arlo homonimoetan kalifikatu ahal izateko. Modulu bateko arlo bat ezin bada kalifikatu ikasleak ez duelako aurreko moduluko alor homonimoetako baten bat gainditu,



orduan dagokion aplikazio informatikoan “Ez ebaluatua” laukitxoa hautatuko da dagokion laukian.

Ikasle batek modulua errepikatzen badu eta moduluko zenbait arlo gaindituta baditu aurreko deialdietan, ez da matrikulatuko ezta kalifikatuko ere gainditutako arloetan. Inolaz ere ezingo dira errepikatu gainditutako arloak.

Arlo bat ezin bada kalifikatu ikaslea ez dagoelako arlo horretan matrikulatuta eta aurreko puntuak ezin bazaizkio aplikatu, noten aplikazio informatikoan dagokion laukitxoa bete gabe utziko da (ebaluazio-akta inprimatutakoan, (--) ikusiko da dagokion laukitxoan).

Baldin eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko Hezkuntzako sailburuak 2021eko maiatzaren 20an emandako Aginduaren III. eranskineko taula oinarriztat hartuta arloren bat baliozkotuztat edo baliokidetzat jotzen bada, ikaslea ez da ez matrikulatuko ez kalifikatuko arlo edo irakasgai horretan. Inguruabar hori adieraziko da Onarpena eta matrikula aplikazioan.

Ikasturtean egindako jarraipena kontuan hartu gabe, irakasle taldeak ikasleen ebaluazioa egingo du taldean, ikasturtea amaitzean egingo den saio bakarrean. Saio horretan:

- Maila igarotzeari eta/edo titulua lortzeari buruzko erabakiak hartuko dira, eta, hala badagokio, ikasleak ikaskuntza-prozesuan aurrera jarraitzeko zer errefortzu-neurri behar dituen adieraziko da.
- Ikasleak oinarrizko kompetentzietan zer maila lortu duen adieraziko da: hasierakoa, erdi-mailako edo aurreratua.

Irakasle taldean adostasunik ez badago, erabakiak ikaslearen ikaskuntza-prozesuan parte hartzen duten irakasleen bi herenen aldeko iritziarekin hartuko dira, gutxienez.

Erabaki nagusiak, maila igarotzeari buruzkoak barne, ikasturte-amaierako ebaluazioaren saioko aktan jasoko dira.

### **IKASLEEK MAILA IGAROTZEA**

Irakasle taldeak, talde horretako irakasle tutoreak koordinatuta, taldean erabakiko du ikasle bakoitza hurrengo modulura igaroko den, kontuan hartuta helburuen lorpena, ezarritako kompetentzien eskuratzeko-maila eta ikaslearen aurrerapenari laguntzen dioten neurrien balorazioa.

Hasierako Irakaskuntzen I. graduaren ikasleek GAI kalifikazioa lortu badute, hurrengo gradura igaroko dira.



Hasierako Irakaskuntzen II. graduan eta Helduen Bigarren Hezkuntzan ikasleak modulu batetik hurrengora igaroko dira, arlo guztiak gainditzen dituztenean edo arlo bakarra dutenean gainditzeke. Kasu horretan, errefortzu-planak ezarriko dira. Gainditzeke dauden arloak zenbatzeari dagokionez, izen bera duten modulu desberdinetako arloak arlo desberdintzat joko dira.

Salbuespen gisa, irakasle taldeak bi arlotan ebaluazio negatiboa duen ikaslea hurrengo modulura igarotzea erabaki ahal izango du; betiere, horietan lortutako kalifikazioa lau bada, gutxienez, eta irizten bazaio errekuiperatzeko aldeko aukerak dituela eta hurrengo modulura igarotzeak ikaslearen eboluzio akademikoari mesede egingo diola. Erabaki hori behar bezala dokumentatu, eta ikaslearen espedientean jasoko da.

Aurrez aurreko modalitatean, ikasleek gehienez lau deialdi izango dituzte, modulu bakoitzeko jakintza-arlo bakoitza gainditzeko. Kontaketa horretan, modulu bakoitzeko etengabeko ebaluazioaren prozesuak eta azken ebaluazioak deialdi bakar bat kontatuko dute. Deialdiak ez agortzeko, ikasleek uko egiteko eskatu ahal izango dute, dokumentazioz justifikatuta, Hezkuntzako sailburuaren 2021eko maiatzaren 20ko Aginduko (Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren berariazko curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena) 15. artikuluan azaldutako baldintzetan.

## **EBALUAZIO-AGIRI OFIZIALAK**

Hezkuntzako Ikuskaritzak jarraibideak argitaratuko ditu, etapetako dokumentazio akademikoa betetzeko ikasturte hau amaitu baino lehen.



## **IKASLEEI ETA, HALA BADAGOKIO, GURASOEI EDO LEGEZKO TUTOREEI INFORMAZIOA EMATEA**

Ikasleen eskola-errendimendua objektibotasun osoz baloratzeko eskubidea bermatzeko asmoz, ikasturtearen hasieran, ikastetxeak ezarritako prozeduraren arabera, sail didaktikoek eta irakasle taldeek informazioa eman diete ikasleei eta haien gurasoei edo legezko ordezkariari, ikasleak adingabeak direnean, arlo bakoitzaren helburuei buruz eta ebaluatzeko, kalifikatzeko, hurrengo mailara igarotzeko eta titulua lortzeko irizpideei buruz.

Gainera, ebaluazio partzialen ondoren, tutoreak eta, hala badagokio, arlo bakoitzeko irakasleek ikasle bakoitzaren hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa emango dute.

Modulu bakoitzaren amaieran, tutoreak, taldeko irakasle taldearen aholkularitzarekin, banakako txostena egingo du amaierako ebaluazioaren ondoren; ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren emaitza jasoko du txostenean. Txosten horretan, arlo bakoitzean eskuratutako kalifikazioak jasoko dira, baita bestelako informazioa ere —eskola-errendimenduari buruz eta, hala dagokionean, jasotako eta etorkizunerako proposatutako laguntza- eta errefortzu-neurri orokorrei eta oinarritzko kompetentzien eskuratze-mailari buruz—; era berean, txostenean jasoko dira maila igarotzeko erabakia, eta, hala badagokio, lortutako titulua.

Banakako txosten horren kopia bana emango zaie ikasleari edo, hala badagokio, ikaslearen gurasoei edo legezko tutoreei.

Jarraibide hauen VII. eranskinean, banakako txostenen eredu orientagarrietara sartzeko estekak agertzen dira.

## **BERRIKUSPEN- ETA ERREKLAMAZIO-PROZEDURAK**

Ikusi jarraibideon V. ERANSKINA.

## **DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUATU-TITULUA**

Helduen Bigarren Hezkuntzako 4. moduluan matrikulatutako ikasleek arlo guztiak gainditzen dituztenean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua emateko proposamena egingo da.



Salbuespenez, titulua lortzeko proposatuko dira, arlo bat gainditu gabe izanik, irakasle taldearen iritziz, etaparen helburuak lortu eta ezarritako kompetentzia-maila eskuratu duten ikasleak, baldin eta aldi berean baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- a) Irakasle taldeak iriztea ikasleak lortu dituela titulu horri dagozkion helburuak eta kompetentziak.
- b) Ikasleak ez galdu izana arloan etengabeko ebaluaziorako eskubidea; hau da, hutsegiteen kopurua ez izatea % 20 baino handiagoa.
- c) Ikaslea probetara aurkeztu izana eta ebaluatzeko beharrezkoak ziren jarduerak egin izana.
- d) Gainditu gabeko arloaren kalifikazioa gutxienez lau izatea.
- e) Ikasitako arlo guztietan lortutako kalifikazioen batezbesteko aritmetikoa bost edo bost baino handiagoa izatea.

Ikaslearen irakasleek taldean hartuko dituzte titulua lortzeari buruzko erabakiak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua bakarra izango da eta kalifikaziorik gabe emango da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua batxilergora, erdi-mailako lanbide-heziketara, arte plastikoetako eta diseinuko erdi-mailako irakaskuntza profesionaletara eta erdi-mailako kirol-irakaskuntzetara joateko aukera ematen du, irakaskuntza horietako bakoitzaren betekizunen arabera.